

Maiatzekoa



Maiatzekoa

irudiak:

IRRIMARRA ilustrazioa

ipuina:

Yolanda Arrieta



BOOKTEGI

Guztion liburua, guztiontzat

booktegi.eus

—Erlemin! —hots egin dio Erreginak—.
Gora! Polena jasotzeko ordua da!

Erleminek bere hiru oin-pareak luzatu
ditu, nagiak ateratzeko.

—Aixxx! Maiatzean gaude, ja? —galdetu
du, oraindik erdi lo.

—Bai. Loraila hemen da! Loraila, loreen
hilabetea! —azaldu dio Erreginak.

Erlemin bere oinetako otarra txukuntzen
hasi da, txiri-txiri, txiri-txiri.



—Joan naiteke berarekin? —galdetu du begi handidun erlamando batek—. Alfer deitzen didate, baina ni ez naiz alferra.

—Um... —egin du Erreginak, muturra okertuz—. Ondo baino hobeto dakizu erlamandoek ez daukazuela oinen arteko otarririk polena biltzeko eta zuen mihia laburregia dela loreen nektarra jasotzeko.

—Jope... —esan du erlamandoak, etsiturik—. Pozik joango nintzateke, ba, zelairik zelai, lore berriei bisita egitera...



Erreginak berriro okertu du muturra.

—Nik arrautzak jarri behar ditut —argitu du—. Eta arrautzak jartzeko, zu behar zaitut. Bakoitzak bere zeregina daukagu hemen. Bakoitzak bere zeregina betetzen ez badu, agur erlauntza eta agur gu!

Erlamandoa isilik geratu da: hausnartzen ari da.

—Egia... —esan du, geroxeago, Erreginarengana hurbilduz—. Guk etxea zainduko dugu eta erle langileek ekar dezatela jana, ezta?

—Hori da! —baieztatu du Erreginak.



Erlamandoa Erreginaren albora joan da. Erreginak bere ondoan hartu du. Erle langileak erlauntzaren atarian bildu dira.

—Prest? —galdetu die Erreginak.

—Bai! —erantzun du Erleminek, denen izenean—. Bagoaz!

Erlamandoak hegoak astindu dizkie erle langileei, agur modura:

—Gero arteee!



Erleminek lehen lorea bisitatu du: bitxilore bat.

—Egun on, Txiribita!

—Egun on, aspaldiko! —erantzun dio bitxiloreak.

—Polen pixka bat emango didazu?

—Hartu nahi beste! Aurten asko daukagu!



—Ene! —esan du Erleminek,
zeharo harrituta—. Eta hori, nola?
Bitxiloreak irribarrez begiratu dio
Erlemini.

—Sekulako giroa izan dugu:
beroa eta lehorra. Eta gainera...
—gehitu nahi izan du.

—Zer? —galdetu dio Erleminek.
Bitxiloreak petaloak harrotu ditu
erantzun baino lehen.

—Kutsadura jaitsi da —esan du,
lepoa luzatuz—. Haize
garbi-garbia arnastu dugu, inoiz
baino garbiagoa.



—A, bai?! —Erleminek ezin du
sinetsi entzuten ari dena—.
Gizakiak aldatzen hasi direla
esan nahi didazu?!

Bitxiloreak sakon hartu du
arnasa eta hiru aldiz jaitsi eta
igo du burua, azkar-azkar.

—Bai.

—Bazen garaia! —esan du erle
langileak, alde egiteko prest.

—Bazen garaia —errepikatu
du bitxiloreak.



—Hurrengora arte, Txiribita!
—Hurrengora arte, Erlemin!





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu